# Xedapen Orokorrak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### 4217

AGINDUA, 1996ko uztailaren 12koa, Ogasun eta Herri Administrazio Sailarena, zerbitzu, erosketa, horniketa eta obren egiaztatze fisiko eta selektiboan kontrol ekonomiko-fiskalaren erabilerari buruzkoa.

Zerbitzu, erosketa, horniketa era obren egiaztatze fisikoan eta selektiboan funtzio kontu-hartzailearen erabileran usatzeko prozedurak arautu beharra, eta bai kontratuen helburua korrektuki gauzatu delakoaren adostasun edo onarpenaren ekintza formala eta positiboa arautu beharra ere, ondoko honek zehazten du: aipagai dugun gaian aldaketa funtsezkoak eragin dituen zenbait arau indarrean jarri izanak.

Kontrol ekonomiko-fiskalaren parte gisa, zerbitzu, erosketa, horniketa eta obren egiaztatze fisikoa eta selektiboa arautu da lehenengo aldiz legeria autonomikoan. Kontrol ekonomiko-fiskal honen nondik norakoak Euskal Autonomi Elkarteko Ekonomia-kontrol eta kontabilitate buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 22. atalean zehazten dira. Eta hala Euskal Autonomi Elkartearen Administrazio Publikoaren esparruan kontabilitate eta barruko kontrol ekonomikoaren erabilerarena urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 29. atalaren bitartez garatzen da, eta bertan inbertsio fisikoak egiaztatzeko era zehazten da; bestalde testu bereko 30. eta 31. atalek zehaztu egiten dute manuz egiaztatze fisikoari lotutako espedienteak eta bai fiskalizatze txostena apailatzeko prozedura ere.

Bestalde maiatzaren 18ko Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko 13/1995 Legeak zehaztu egiten du ondoko hau: kontratuen helburuaren burutzea edo entregatzea gauzatu delakoaren adostasunak edo errezepzioak dituen birtualiatea eta ondorioak, hain zuzen kontratuak konplitzeko administrazioei eskatu ahal zaizkienak.

Aurreko guztiaren arabera, eta Euskal Autonomi Elkartearen esparruan barruko ekonomia-kontrola eta kontabilitatearen erabilera zehazten duen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren azken xedapenetarik lehengokoak ematen didan ahalmena erabiliz, ondoko hau,

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Egiaztatze fisikoa.

1.– Obren, horniketen, laguntzen, ezohiko lan espezifiko eta konkretuen eta zerbitzuen egiaztatze fisikoan kontrol ekonomiko-fiskalaren erabilera ondoren zehazten den bezala gauzatuko da: fondo publikoak izendatuta zeukaten helburarako erabili direlakoa justifika-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### 4217

ORDEN de 12 de julio de 1996, del Departamento de Hacienda y Administración Pública, sobre ejercicio del control económico-fiscal en la verificación física y selectiva de las obras, suministros, adquisiciones y servicios.

La necesidad de regular los procedimientos a seguir en el ejercicio de la función interventora en la verificación física y selectiva de las obras, suministros, adquisiciones y servicios, o acto formal y positivo de recepción o conformidad de la correcta realización del objeto de los contratos, viene determinada por la entrada en vigor de diversas normas que han producido cambios sustanciales en esta materia.

Por primera vez en la legislación autonómica se ha regulado con carácter sustantivo la verificación física y selectiva de las obras, suministros, adquisiciones y servicios como parte del control económico-fiscal cuyo alcance y extensión se prevé en el artículo 22 de la Ley 14/1994, de 30 de junio, de control económico y contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, siendo así que el artículo 29 del Decreto 464/1995, de 31 de octubre, por el que se desarrolla el ejercicio del control económico interno y la contabilidad en el ámbito de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, determina la forma de llevar a cabo la verificación física de las inversiones y los artículos 30 y 31 del mismo texto legal prevén, respectivamente, los expedientes sujetos preceptivamente a verificación física y el procedimiento para emitir el informe de fiscalización correspondiente.

La Ley 13/1995, de 18 de mayo, de Contratos de las Administraciones Públicas, por su parte, contempla la virtualidad y efectos que para el cumplimiento de los contratos exigible a las Administraciones, reviste la recepción o conformidad de haberse producido la entrega o realización del objeto de los contratos.

Por cuanto antecede, y en uso de la facultad que la Disposición Final Primera del Decreto 464/1995, de 31 de octubre, por el que se desarrolla el ejercicio del control económico interno y la contabilidad en el ámbito de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, me confiere,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Verificación física.

1.– El ejercicio del control económico-fiscal en la verificación física de obras, suministros, asistencias, trabajos específicos y concretos de carácter no habitual y servicios, se llevará a cabo mediante la comprobación material de los mismos y mediante el examen de la

tzen duen agiriak aztertuz eta materialki egiaztatuz goian aipaturikoak.

2.– Egiaztatze fisikoa honela burutuko da: horniketaren, laguntzaren, ezohiko lan espezifiko eta konkretuaren edo dena delako zerbitzuaren onarpen ekintzan kontu-hartzailearen partaidetzarekin.

*2. atala.–* Egiaztatze fisikoari atxikitako espedienteak.

1.– Ondoko hauen kasuan manuzkoa izango da Kontrol Ekonomikorako Bulegoaren egiaztapen fisikoa:

a) Guztirako zenbatekoa 300.000.000 pezetatik gorakoa duten obrak, zenbatekoa zehazterakoan kontutan izan beharko direlarik kontratuaren prezioa gehitu duten aldakuntzak. Obren onarpenari aplikagarri zaizkion arauetan zehaztu legez burutuko da egiaztapena.

b) Horniketen kasuan: guztirako zenbatekoa edo, halakorik balitz, lotekako zenbateko partziala 100.000.000 pezetatik gorakoa bada, eta homologatuak ez badira izan, beti ere euren entrega ekintza bakarrean gauzatuz gero. Horniketako ondasunak entregatzeko unean egingo da egiaztapena.

c) Laguntzak, ezohiko lan espezifiko eta konkretuak edo zerbitzuak, euren zenbatekoa 50.000.000 pezetatik gorakoa bada; eta beti ere helburutzat estudio konkretuak, proiektuak edo txostenak entregatzea badute. Zenbatekoak zehazterakoan kontutan izango dira kontratuen prezioak gehitu dituzten aldakuntzak. Kontratuaren helburua den estudio, proiektu edo txostena entregatzen denean burutuko da egiaztapena.

2.– Atal honetako lehenengo idazatian sartzen ez diren zerbitzuak, ezohiko lan espezifiko eta konkretuak, laguntzak, horniketak edo obrak egiaztatu egingo dira fisikoki Kontrol Ekonomikorako Bulegoko zuzendariak hala agintzen duenean; egiaztapena egingo delakoaren berri erakunde kudeatzaileari eman baharko zaiolarik -aurretiaz eta sasoiz-, hala erakunde honek kontu-hartzailea izendatzeko eskaria egin dezan.

*3. atala.–* Kontu-hartzailea izendatzeko eskaria.

1.– Aurreko 2. atalean zerrendatutako espedienteen egiaztapen fisiko diren ekintzetarako kontu-hartzailea izendatzeko eskariaren izapideak organo kudeatzaileak Kontrol Ekonomikorako Bulegoan egin beharko ditu, onarpen ekintzarako eguna eta ordua jakinaraziz, beti ere eskaria agindu honi atxikita agertzen den I. eranskin gisa agertzen den ereduari zeharo egokitua izango delarik.

2.– Atal honetan aipagai dugun eskaria Kontrol Ekonomikorako Bulegoak aldez aurretik jaso beharko du -gutxienez 15 egun lehenago-, obren onarpenari badagokio; eta 5 egun lehenago zerbitzuen, ezohiko lan espezifiko eta konkretuen, laguntzen edo horniketen onarpenari badagokio.

*4. atala.–* Kontu-hartzailea izendatzea.

1.– Obraren, horniketaren, laguntza, lan espezifiko eta ezohiko konkretuaren edo zerbitzuran onarpen

documentación justificativa de la aplicación de los fondos públicos a la finalidad para la que estaban destinados.

2.– La verificación física se realizará concurriendo el Interventor al acto de recepción de la obra, suministro, asistencia, trabajo específico y concreto de carácter no habitual o servicio de que se trate.

*Artículo 2.–* Expedientes sujetos a verificación física.

1.– Será preceptiva la verificación física por la Oficina de Control Económico de:

a) Las obras cuyo importe total sea superior a 300.000.000 de pesetas, debiendo considerarse, a efectos de determinación de dicho importe, las modificaciones que hayan incrementado el precio del correspondiente contrato. La verificación se llevará a cabo en la forma determinada por las normas aplicables a la recepción de obras.

b) Los suministros cuyo importe total o, en su caso, parcial por lotes sea superior a 100.000.000 de pesetas y que no hayan sido objeto de homologación, siempre que su entrega se realice en un único acto. La verificación se realizará en el momento de la entrega de los bienes objeto del suministro.

c) Las asistencias, trabajos específicos y concretos de carácter no habitual o servicios de importes superiores a 50.000.000 de pesetas, cuando su objeto consista en la entrega final de informes, proyectos o estudios concretos. Para la determinación de los importes se tendrán en cuenta las modificaciones que hayan incrementado el precio de los correspondientes contratos. La verificación se efectuará en el momento de la entrega del informe, proyecto, o estudio objeto del contrato.

2.– Las obras, suministros, asistencias, trabajos específicos y concretos de carácter no habitual o servicios no incluidos en el párrafo 1 de este artículo, podrán ser objeto de verificación física cuando así se determine por el Director de la Oficina de Control Económico, debiéndose comunicar esta circunstancia al órgano gestor, con la debida antelación, para que proceda a la solicitud de designación de Interventor.

*Artículo 3.–* Solicitud de designación de Interventor.

1.– La solicitud de designación de Interventor para los actos de verificación física de los expedientes relacionados en el artículo 2 anterior, se tramitará por el órgano gestor a la Oficina de Control Económico notificando el lugar, día y hora previstos para el acto de recepción, debiendo ajustarse, en todo caso, al modelo que se adjunta como Anexo I a la presente Orden que se cumplimentará en todos sus extremos.

2.– La solicitud a que se refiere el presente artículo deberá ser recibida en la Oficina de Control Económico con una antelación no inferior a 15 días si se trata de recepciones de obras y mínima de cinco días si se trata de recepción de suministros, asistencias, trabajos específicos y concretos de carácter no habitual y servicios.

*Artículo 4.–* Designación de Interventor.

1.– El Director de la Oficina de Control Económico designará Interventor para que concurra al acto de

ekintzan parte har dezan Kontrol Ekonomikorako Bulegoko zuzendariak kontu-hartzailea izendatuko du, agindu honetan II. eranskin gisa agertzen den eredua erabiliz organo kudeatzaileari jakinaraziz.

2.– Kontu-hartzailearen izendapenarekin batera, beharrezko balitz, kontu-hartzaileari egiaztapen fisikoan lagunduko dion aholkulari teknikoarena ere jakinaraziko da, agindu honetan III. eranskin gisa agertzen den eredua erabiliz.

*5. atala*.– Aholkulari teknikoaren izendapena.

1.– Egiztapen fisikoa egiteko ezagutza teknikoak izatea beharrezkoa denean, Kontrol Ekonomikorako Bulegoko zuzendariak ondoren zehazten den funtzionario bat izendatzeko eskatu dezake kontu-hartzailearen aholkulari gisa jardun dezan: zerbitzu, ezohiko lan espezifiko eta konkretu, laguntza, horniketa edo obrari dagokion espezialitaterako beharrezko diren ezagutzak dituena.

2.– Komertzioan ohiko baldintzekin, kalitatearekin edo kopuruarekin zehaztu daitezkeen objektuei dagokienean, edo objektuak marka komertzialarekin edo izenarekin kreditatuta badute euren jatorria, ez da izango beharrezkoa ezagutza teknikoak izatea prestazioa materialki egiaztatzeko.

Aitzitik, ondoren zehazten den kasuan beharrezko izango da ezagutza teknikoak izatea obren onarpenen egiaztapena burutzeko: arkitektu edo injineru diren funtzionario teknikoek egin badituzte proiektuak, eta halaber proiektuak sinatzeko titulu akademiko edo profesionalak eduki behar dituztenek egindakoak badira.

3.– Aholkulari teknikoaren izendapena Kontrol Ekonomikorako Bulegoko zuzendariak egingo du, ahal delarik Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak hartarako proposaturikoen artean, salbu eta sail honi dagozkion inbertsioak badira, kasu honetan beste sail bati atxikitako fakultatibo bat izendatuko da.

4.– Atal honetako 1. idazatian zehazturiko ondorioetarako Kontrol Ekonomikorako Bulegoak sailei eskatu egingo die delako lana egin dezaketen tekniko aholkularien zerrenda eta euron artean egingo ditu izendapenak, Kontrol Ekonomikorako Bulegoaren ordezkaritza tekniko aholkulari batek izan lezakeelarik.

*6. atala*.– Egiaztapen fisikoaren emaitza.

1.– Egiztapen fisikoa ekintzara bertaratu diren guztiek sinaturiko akta baten bitartez kreditatu beharko da eta akta horretan ondorengo hauek erasoko dira: halakorik balitz, hautemandako hutsak, hauek zuzentzeko hartu beharreko neurriak eta zuzenketok burutzeko epea, eta bai onarpeneko zirkunstantzia eta gertaerak ere. Emandako epea amaitutakoan, beste onarpen ekintza bat burutuko da, egiaztatu ahal izateko ea hutsak zuzendu diren ala ez.

2.– Egiaztapen fisikoaren emaitzak biltzen dituen aktan edo txosten osagarrian bertaratutakoek banan banan edo taldeka egoki irizten dioten ohar oro formulatu ahal izango dute.

recepción de la obra, suministro, asistencia, trabajo específico y concreto de carácter no habitual o servicio de que se trate, notificándolo al órgano gestor de acuerdo con el modelo que se adjunta como Anexo II a esta Orden.

2.– Simultáneamente a la notificación de designación de Interventor se efectuará, si procede, la del asesor técnico que asistirá al anterior en la verificación física, de conformidad con el modelo que se adjunta como Anexo III a esta Orden.

*Artículo 5*.– Designación de asesor técnico.

1.– Cuando para realizar la verificación física sea necesaria la posesión de conocimientos técnicos, el Director de la Oficina de Control Económico podrá solicitar la designación de un funcionario con los conocimientos necesarios en la especialidad a la que corresponde la obra, suministro, asistencia, trabajo específico y concreto de carácter no habitual o servicio, para que asesore al Interventor.

2.– La comprobación material de la prestación no requerirá la posesión de conocimientos técnicos cuando ésta se refiera a objetos determinables por su número, calidad y condiciones usuales en el comercio, o cuya procedencia esté acreditada por el nombre o marca comercial que conste en los mismos.

Por el contrario, será necesaria la posesión de conocimientos técnicos para realizar la comprobación de recepciones de obras cuyos proyectos hayan sido redactados por funcionarios técnicos, tales como arquitectos, ingenieros o cualesquiera otros que deban poseer para suscribirlos títulos académicos o profesionales.

3.– La designación de asesor técnico se llevará a cabo por el Director de la Oficina de Control Económico preferentemente de entre los propuestos, a tales efectos, por el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, salvo que se trate de inversiones correspondientes a este Departamento, en cuyo caso la designación deberá recaer sobre un facultativo adscrito a otro distinto.

4.– A los efectos previstos en el apartado 1 de éste artículo la Oficina de Control Económico recabará de los Departamentos la relación de técnicos asesores disponibles y efectuará la designación de entre los mismos, pudiendo recaer la representación de la Oficina de Control Económico en el técnico asesor.

*Artículo 6*.– Resultado de la verificación física.

1.– El resultado de la verificación física se acreditará mediante acta que suscribirán todos los asistentes al acto y en la que se harán constar, en su caso, las deficiencias apreciadas, las medidas a adoptar para subsanarlas, y el plazo para hacerlo, así como los hechos y circunstancias relevantes de la recepción. Expirado el plazo concedido se procederá a efectuar un nuevo acto de recepción para comprobar la subsanación de las deficiencias.

2.– En el acta que refleje los resultados de la verificación física o en informe ampliatorio podrán los concurrentes, de forma individual o colectiva, formular las observaciones que estimen pertinentes.

3.– Egingo diren manuzko egiaztapen fisikoen akta guztien kopia igorri beharko da Kontrol Ekonomikorako Bulegora.

*7. atala.*– Agiriak.

1.– Egiaztapen fisikoa kontutan izanik, izendatutako kontu-hartzaileak zein aholkulari teknikoak eskura izan beharko dituzte beharrezko agiriak -aldez aurretik eta sasoiz- egiaztatu ahal izateko, ea prestazioa egokitzen den kontratuaren baldintzetara; horretarako Kontrol Ekonomikorako Bulegoak egoki irizten diona igortzeko eskatu ahal izango dio organo kudeatzaileari.

2.– Egiaztapen fisikoari buruzko espedienteen segimendu eta kontrol egokia erraztearren, Kontrol Ekonomikorako Bulegoak eurotariko bakoitzari erreferentzia bat esleituko dio, zeintzu agindu honetako 4. eta 5. ataletan aipatzen diren izendapenetan konstarazi beharko baitira.

Egiztapen fisiko bereko espedienteari buruzko agiri guztietan konstaraziko da aipatu erreferentzia.

*8. atala.*– Egiztapen fisikoaren ondorioak.

Obligazio-aitortze edo likidazioari buruzko espediente baten izapideak ere ez ditu egingo Kontrol Ekonomikorako Bulegoak, baldin eta espediente horretan ez bada agertzen behar bezala beteta onarpen aktaren kopia bat; edozelan ere egiaztatu egin beharko direlarik berorretan erasotako hutsak zuzendu diren ala ez edo hutsok kausa direnentz etenarazlea den kontrako fiskalizatze txostenerako. Guzti hau Euskal Autonomi Elkartearen Ekonomia-kontrol eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legeko 24.1.d) atalean zehaztutakoaren arabera.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Obra batzuk ez badute helburu pratikorik ez da manuzkoa euron egiaztapen fisikoa, euron zenbatekoak direnak direla ere. Kasu horretan leudeke aldeko emaitzik izan ez duten zundaketak eta prospekzioak edo karrakaketa edo antzeko lanak burutzea direnak.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren funtzioak eta egitura ezartzen dituen otsailaren 28ko 173/1995 Dekretuaren 21.2 atalean ezarritakoaren eta honekin bat datozen arauen arabera, agindu honetan Kontrol Ekonomikorako Bulegoari edo Kontrol Ekonomikorako Bulegoko zuzendariari egindago erreferentziak, hurrenez hurren Osakidetzan Kontu-hartzailetzari eta Osakidetzako kontu-hartzaileari egindakotzat jo behar dira, erakunde autonomo honen esparruan, salbu eta 5.4 atalean zehazten dena.

ALDIBATERAKO XEDAPEN BAKARRA

Estatuaren Kontratuei buruzko aurreko legeriaren idarraldian esleitutako obren kontratuei dagozkien

3.– Deberá remitirse a la Oficina de Control Económico una copia de todas las actas de verificación física preceptiva, que se efectúen.

*Artículo 7.*– Documentación.

1.– Teniendo en cuenta el objeto de la verificación física tanto el Interventor designado como el técnico asesor, deberán disponer de la documentación necesaria para comprobar la adecuación de la prestación a las condiciones del contrato con la antelación suficiente, a cuyos efectos, la Oficina de Control Económico requerirá al órgano gestor la remisión de la que estime pertinente.

2.– Con objeto de facilitar el adecuado control y seguimiento de los expedientes de verificación física, la Oficina de Control Económico asignará a cada uno de ellos una referencia que se hará constar en las designaciones a que se refieren los artículos 4 y 5 de esta Orden.

Dicha referencia se hará constar en todos los documentos referidos a un mismo expediente de verificación física.

*Artículo 8.*– Efectos de la verificación física.

La Oficina de Control Económico no tramitará ningún expediente de liquidación o de reconocimiento de obligación si no figura en el mismo una copia del acta de recepción debidamente cumplimentada debiendo comprobar si, en su caso, los defectos señalados en la misma han sido subsanados o si los mismos son causa de informe de fiscalización desfavorable suspensivo de conformidad con lo previsto en el artículo 24.1.d) de la Ley 14/1994, de 30 de junio, de control económico y contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA

Con independencia del importe de las mismas no será preceptiva la verificación física de las obras cuya perduración no tenga finalidad práctica como las de sondeos y prospecciones que hayan resultado infructuosas y de aquellas que consistan en la realización de trabajos de dragados o similares.

DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 21.2 del Decreto 173/1995, de 28 de febrero, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública y normas concordantes, las referencias efectuadas en la presente Orden a la Oficina de Control Económico y al Director de la Oficina de Control Económico deben entenderse realizadas a la Intervención en el Servicio Vasco de Salud-Osakidetza y al Interventor en Osakidetza, respectivamente, en el ámbito de este Organismo Autónomo, salvo la contenida en el artículo 5.4 de la misma.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA ÚNICA

Para la comprobación material de inversiones correspondientes a contratos de obras adjudicados durante la

inbertsioak materialki egiaztatzeko, agindu honetako eranskinetan ezarritako ereduak erabiliko dira, organo kudeatzaileak konstarazi egin beharko duelarik zirkunstantzia hau eurotan.

INDARGABETZE XEDAPENA

Inbertsioen egiaztatze materialean kontu-hartze funtzioaren erabilerari buruzko 1985eko urriaren 8ko Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren Agindua idargabetua geratzen da.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa*.– Baimena ematen zaio Kontrol Ekonomikorako Bulegoari beharrezko jarraibideak emateko, hain zuzen agindu hau garatu eta martxan ipintzeko direnak.

*Bigarrena*.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean izango da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1996ko uztailaren 12a.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

vigencia de la anterior legislación sobre Contratos del Estado se utilizarán los modelos establecidos en los Anexos de la presente Orden, debiendo el órgano gestor hacer constar en los mismos esta circunstancia.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la Orden de 8 de octubre de 1985, del Departamento de Economía y Hacienda, sobre ejercicio de la Función Interventora en la comprobación material de las inversiones.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera*.– Se autoriza a la Oficina de Control Económico a dictar las instrucciones necesarias para la puesta en práctica y desarrollo de la presente Orden.

*Segunda*.– La presente Orden entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de julio de 1996.

El Consejero de Hacienda y Administración Pública,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## I. ERASKINA/*ANEXO I*

### HORNIKETA, LAGUNTZA, EZOHIKO LAN ESPEZIFIKO ETA KONKRETU ETA OBREN ONARPEN EKINTZETARAKO KONTU-HARTZAILEA IZENDATZEKO ESKARIAREN EREDUA./*MODELO PARA SOLICITUD DE DESIGNACIÓN DE INTERVENTOR EN ACTOS DE RECEPCIÓN DE OBRAS, SUMINISTROS, ASISTENCIAS, TRABAJOS ESPECÍFICOS Y CONCRETOS DE CARÁCTER NO HABITUAL O SERVICIOS.*

| | | |
|---|---|---|
| KONTRATU MOTA<br>*TIPO DE CONTRATO* | GUZTIRA ☐<br>*TOTAL* | KONTU-HARTZEAREN ERREFERENTZIA (1)<br>*REFERENCIA DE INTERVENCION*<br>/ |
| AURRIKUSITAKO HARTZE EGUNA<br>*FECHA PREVISTA DE RECEPCION O CONFORMIDAD*<br>/ / | ZATIA ☐<br>*PARCIAL* | HURRENKERA ZKIA.<br>*N.º ORDEN* ___________________________ |

| ZENTRU INBERTITZAILEA/*CENTRO INVERSOR* | |
|---|---|
| SAILA EDO ERAKUNDEA<br>*DEPARTAMENTO U ORGANISMO* | ZERBITZUA<br>*SERVICIO* |

| INBERTSIOAREN AZALPENA / *DESCRIPCION DE LA PRESTACIÓN OBJETO DEL CONTRATO* |
|---|
| |

| INBERTSIOEN KOKALEKUA / *LOCALIZACION DE LA RECEPCIÓN* | |
|---|---|
| UDALA / *MUNICIPIO* | LURRALDEA / *TERRITORIO* |

| KONTRATISTARI BURUZKO XEHETASUNAK / *DATOS DEL CONTRATISTA* | |
|---|---|
| ZIZ edo NAN<br>*NIF o DNI* | GIZABANAKO EDO ELKARTEAREN IZENA<br>*NOMBRE O RAZÓN SOCIAL* |

| | | |
|---|---|---|
| LANAK ASTEKO EGUNA<br>*FECHA DE INICIO DE LA PRESTACIÓN*<br>/ / | LANAK BUKATZEKO EGUNA<br>*FECHA DE TERMINACION DE LA PRESTACIÓN*<br>/ / | BERME EPEA<br>*PLAZO DE GARANTIA* |
| PROEKTOAREN AURREKONTUA<br>*PRESUPUESTO DE LICITACIÓN* | AURREKONTUKO APLIKAZIOA<br>*APLICACION PRESUPUESTARIA* | ARTEKARITZAREN ERREFERENTZIA<br>*REFERENCIA DE INTERVENCION (3)* |
| IZENDATZEAREN AURREKONTUA<br>*PRESUPUESTO DE ADJUDICACION* | | |

| URTE ASKOTAKO BANAKETA, MILAKA PEZETATAN / *DISTRIBUCION PLURIANUAL EN MILES DE PESETAS (4)* | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 19 | 19 | 19 | 19 | 19 | GUZTIRA<br>*TOTAL* |
| ________ | ________ | ________ | ________ | ________ | ________ |

............ko/eko............................ren..................a./......................., *a ............. de ........................ de 19.....*

IZENPEA ETA ZIGILUA/*FIRMA Y SELLO*

KONTROL EKONOMIKORAKO BULEGOKO ZUZENDARI JAUNA./*ILMO. SR. DIRECTOR DE LA OFICINA DE CONTROL ECONÓMICO.*

(1) A cumplimentar por la Oficina de Control Económico. (2)A cumplimentar por el Departamento en el supuesto de proceder más de 1 acto de recepción (Art. 6.1 de la Orden de ...de julio de 1996, del Departamento de Hacienda y Administración Pública, sobre ejercicio del control económico-fiscal enla verificación física y selectiva de las obras, suministros, adquisiciones y servicios). (3) Se indicará la Referencia de Intervención del expediente de gasto. (4) Si la ejecución de la inversión se realiza durante más de un ejercicio presupuestario, debe hacerse constar el importe correspondiente a cada uno de ellos.

II. ERASKINA

————————————————————REN/EN ONARPEN EKINTZARAKO KONTU-HARTZAILEA IZENDATZEKO EREDUA

Jn. h.:

———— erreferentzia esleitu zaion eta ——————————————— gisa deskribatzen den prestazioaren onarpen ekintzan parte hartzeko kontu-hartzaile izendatzeko zuk —————an/ean egindako eskaria jaso du Kontrol Ekonomikorako Bulegoak; eta Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko maiatzaren 18ko 13/1995 Legean ezarritakoarekin bat eginez, eta otsailaren 28ko 173/1995 Dekretuak bulego honi damaizkion eskurantzen arabera, Euskal Autonomi Elkartearen Ekonomi-kontrol eta Kontabilitateari buruzko 14/1994 Legearen 22.1.b) atalean zehazturiko kontrol ekonomiko-fiskalaz baliatuz prestazioaren egiaztapena burutzearren; Euskal Autonomi Elkartearen esparruan kontabilitate eta kontrol ekonomikoari buruzkoa garatzen duen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 29. atala eta hurrengoak kontutan hartuta, bulego honek ———————————————Jn/And. kontu-hartzaile izendatzea ebatzi du, ————————————Jn/And. aholkulari tekniko izango duelarik.

Vitoria-Gasteiz, ko/eko ren a.

KONTROL EKONOMIKORAKO BULEGOA.

III. ERASKINA

——————————————————REN/EN ONARPEN EKINTZARAKO KONTU-HARTZAILEAREN AHOLKULARI TEKNIKOA IZENDATZEKO EREDUA.

Zerbitzu, erosketa, horniketa eta obren egiaztapen fisiko eta selektiboan kontrol ekonomiko-fiskalaren erabilerari buruzko Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren 1996ko uztailaren .....ko/eko Aginduaren 5. atalean xedatutakoa konplituaz, honako hau,

ERABAKI DUT:

——————— erreferentzia esleitu zaion eta—————————————— gisa deskribatzen den prestazioaren onarpen ekintzarako kontu-hartzailearen aholkulari tekniko ————————————-Jn/And. izendatzea; horregatik bada jakinarazi egiten zaizu aipatu ekintza ———ko/eko ———ren —————an/ean, ———etan/an burutuko dela.

Guzti hau jakinarazten zaizu aipatu ekintzan ager zaitezen; eta horretarako beharrezko agiriak igorriko zaizkizu, hala egiaztatu ahal izan dezazun ea prestazioa kontratuaren baldintzetara egoitzen den ala ez.

Vitoria-Gasteiz, ko/eko ren a.

KONTROL EKONOMIKORAKO BULEGOA.

*ANEXO II*

*MODELO DE DESIGNACIÓN DE INTERVENTOR PARA EL ACTO DE RECEPCIÓN DE*_________________________________

*Ilmo. Sr.:*

*Recibida en la Oficina de Control Económico con fecha* _______________ *su solicitud de designación de Interventor para concurrir al acto de recepción de la prestación que se describe como* ____________________________________ *al que se ha asignado la referencia* ___________*, esta Oficina, de conformidad con lo establecido en la Ley 13/1995, de 18 de mayo, de Contratos de las Administraciones Públicas, en virtud de las atribuciones conferidas por el Decreto 173/1995, de 28 de febrero, y a efectos de llevar a cabo la verificación física de la prestación en ejercicio del control económico-fiscal previsto en el artículo 22.1.b) de la Ley 14/1994, de control económico y contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en relación con los artículos 29 y siguientes del Decreto 464/1995, de 31 de octubre, por el que se desarrolla el ejercicio del control económico interno y la contabilidad en el ámbito de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi* HA RESUELTO *designar Interventor para el citado acto a D./Dña.*________________________________*, asistido por el asesor técnico D./Dña.*__________________________*.*

*Vitoria-Gasteiz, a de de*

*OFICINA DE CONTROL ECONOMICO*

## *ANEXO III*

*MODELO DE DESIGNACIÓN DE ASESOR TÉCNICO DEL INTERVENTOR PARA EL ACTO DE RECEPCIÓN DE ________________________________________*

*En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 5 de la Orden de _________de julio de 1996 del Departamento de Hacienda y Administración Pública sobre ejercicio del control económico-fiscal en la verificación física y selectiva de las obras, suministros, adquisiciones y servicios,* RESUELVO:

*Designar a D./Dña. _________________________________ como asesor técnico del Interventor en el acto de recepción de la prestación que se describe como _______________________________________________________ al que se ha asignado la referencia ____________, a cuyos efectos se le comunica que el citado acto tendrá lugar en ______________________ en fecha _________________ hora _________.*

*Lo que se le comunica para que concurra a dicho acto, a cuyos efectos le será remitida oportunamente la documentación necesaria para comprobar la adecuación de la prestación a las condiciones del contrato.*

*Vitoria-Gasteiz, a de de*

*OFICINA DE CONTROL ECONOMICO*